



Euskararen berri OLAtu gainean

2019ko IRAILEKO ALBISTEAK

[Olatz Olosa: "Historia markatua dauka euskarak eta horrek bere markan eragina du"](#)

Euskararen marka landu nahi dute EHUK eta euskalgintzako hainbat eragilek; horien artean, Emun-ek. Arrasaten egoitza duen Emun kooperatibako zuzendari Olatz Olosok eman ditu azalpenak. Bere hitzetan, "aztertu nahi dugu euskararen soinekoa jantzita nola ikusten dugun geure burua eta nola sentiarazten gaituen, eta horrek zertan baldintzatzen duen besteek nola ikusten gaituzten".

[Baliabide digitalak, arauaren hedapen eta onarpen sozialaren mesedetan, Euskaltzaindiaren mintegia](#)

Euskaltzaindiaren mintegian besteak beste, Miriam Urkiak, Hans Van de Veldek, Mikel Zalbidek, Vincenç Rivièrek eta Joaquim Rafelek hartu dute parte. Mikel Zalbide euskaltzain osoak esan duenez, "arauak gustukoak diren, erabiltzen ote diren, nork erabiltzen ote dituen aztertu behar da, eta, finean, jarrera, ezagutza eta erabilera aztertu, teknologia berriak baliatuz".

[Euskaraldiaren ikerketak ondorioztatu duenez, "nabarmen astindu" ziren parte hartzaileen hizkuntza ohiturak 11 egunetan](#)

Euskaraldiaren lehen edizioak "nabarmen astindu zituen" bertan parte hartu zutenen hizkuntza jokaerak ariketaren 11 egunetan eta, era berean, hiru hilabete beranduago aldaketa horiei "proportzio altuan eutsi egin" zitzairen. Horixe da Euskaraldia: 11 Egun Euskaraz emaitzen azterketatik atera den ondorio nagusietako bat, Soziolinguistika Klusterrak egin duen ikerketa baten arabera. Azterlana burutzeko Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa eta Gipuzkoako Foru Aldundia lankidetzan aritu dira, Klusterrarekin eta Euskaltzaleen Topagunearekin batera.

[Hizkuntzen "abiadura informatiboa" aztertu dute eta denak berdintsuak dira, euskara barne](#)

Hiztun askori iruditzen zaie erdara jakin batzuetan "oso azkar hitz egiten" dutela. Kontua zientifikoki aztertu dute, eta bi emaitza bitxi aurkitu dituzte: hizkuntza batzuetan besteetan baino silaba gehiago esaten dituzte segundoko, baina, aldiz, transmititzen den informazioa berdintsua da batean zein bestean. 17 hizkuntza aztertu dituzte eta euskara dago tartean. Nonbait, euskaldunok 8 silaba esaten ditugu segundoko.

[Hizkuntza Eskubideen Behatokiak zuzendari berria izendatu du: Agurne Gaubeka](#)

Agurne Gaubekak (Bermeo, 1984) Lan-zientzietan (Pompeu Fabra Unibertsitatea) eta Lan-harremanetan (Euskal Herriko Unibertsitatea) ditu ikasketak. Eskubideen esparruan aritu izan da orain arte, bereziki ikuspegi feministan egin du bidea eta sindikalismoan bai Katalunian zein Euskal Herrian aritutakoa da. Aurrerantzean, Behatokiak lan ildo berriak jorratuko ditu, oinarrizko eskubideak urratzen dituzten beste kolektiboekiko aliantza berriak eraikiz.

